

FALLECE KARMELO ETXENAGUSIA



aquella época se empezaba a hacer la Bilbao-Behobia. Karmelo tardaba cinco horas en ir y volver por la carretera de la costa. Aquellos trabajos se hicieron con mucho esfuerzo y dificultades", constata.

En una época en la que la gramática del euskera estaba por definirse –"el verbo auxiliar vasco estaba en estudio"– la labor de Etxenagusia fue encomiable. "Tenía un buen carácter para trabajar en grupo. Sabía escuchar y era respetuoso con las opiniones de los demás", cuenta Etxezarreta, tras dejar patente la dificultad que suponía que "personas con dialectos distintos" se pusieran de acuerdo al escoger "las palabras más ampliamente aceptadas en los distintos territorios". "Así como algunas reuniones suelen ser un poco tensas, cuando se trataba de reunirse con Don Karmelo la cosa iba sobre ruedas".

Puestos a elegir términos, Etxenagusia no tenía dudas. "A otros les preocupaba más que la traducción fuera fiel al original, pero el buscaba que las expresiones fueran inteligibles. El euskera que utilizaba y que trataba de implantar en los textos era un euskera fácil de entender por el pueblo", cuenta. "Espiritualmente Etxenagusia fue un sacerdote responsable de liturgia en la Diócesis de Donostia. En el plano humano, destaca, "era un hombre de carácter abierto y buen compañero, lo que se dice cuando un amigo nos deja".

JESÚS GARITAONANDIA

"Era una buena persona en el auténtico sentido de la palabra"

"Era una buena persona en el auténtico sentido de la palabra. Humilde, sencillo, cercano y servicial". Jesús Garitaonandia, rector del santuario de Begoña, no tiene más que buenas palabras para el hombre que le cedió el testigo como párroco de la basílica más emblemática de Bizkaia. "Cuando me llamé para suplirle yo, que era párroco en Amorebieta, creí que me tomaba el pelo. Me dijo: *Si tienes miedo, yo te acompañaré*. Y así lo hizo, fue mi consultor", recuerda.

Nombrado obispo auxiliar de Bilbao, entre otros muchos méritos, "porque hablaba euskera", Etxenagusia no perdió con el cargo "el cariño y la cercanía con la gente". De hecho, a menudo "solía acercarse a saludar a la sacristía o metía horas en el club de jubilados".

Como último adiós, Unzueta toma, a petición del diario, la palabra. "Más que *Descanse en paz*, que es como un deseo, yo diría: *Descansa en paz porque vivió en paz*. Es muy difícil encontrar enemigos de Karmelo, prácticamente imposible".

tomada hace unos años.

Iritzia

IGONE ETXEBARRIA (*)

Karmelo Etxenagusia maisuaren zordun

KARMELO Etxenagusia-aren ikasle izan garanok irakasle batek bere gaia gozatzeko erakustea zerdan ikasi dogu beste ezer baino gehiago. Karmelok euskera eta euskal kultura barru-barrutik maite izan dau, eta testu eta adierazpide guztietan topetan izan dau edertasuna.

Izakeraz samurra zan, Karmelo, lagunarterako atsegina, ederzalea eta aurrean daukan guztiari edertasuna ikusten ekiana.

Hori euskerara eroanda, gure literatura asko maite eta estimetan eban, eta alderdi ona eta polita topetan eban nahiz bertsoetan, nahiz idazle klasikoekin sermoietan, nahiz idazle barrien testu ausartagoetan. Ereilea izan da gure gizartean, harrokeri barik, apal eta isilik.

Gazterik hasi zan euskal hizkuntza eta literatura ikasten, bere kontura, jakina. Eta Derioko Seminarioko ikasleai, testuak haututa, erakusten eutsen leiduntan eta euskeraz be gauza ederrak eta polito esan daitekezala jabetzen. Seminarioko irakasle zala ondu ebazan lehenengo apunteak eta

testu-antologiak, 1965ean bizkaierazko testuakaz, 1967an gipuzkerazkoakaz. Ez zan erraza euskerazko liburuak eukitea eta holan horniduten ebazan eskolak.

Seminarioaren inguruan sortu zan 1970ean Derioko Udako Euskal Ikastaroa, hango irakasleakaz. Tartean zan Karmelo, jakina. Eskolak nok eta zelan emon berak eratu eban hasieran, eta hurrengo hogeituz urteetan hutsik egin barik segidu eban eskolak emoten.

Karmeloren eskoletan literatura leidu, kantau eta, txatal baktuxean bai euskera motak ikasi, bai esaldi ederrak azpimarratu egiten genduzan. Teoria literario eta azterketa filologikoetatik aparte, jente asko zaletu dau Karmelok, inguruan daukanunari zelan begitu erakutsita. Ahozko erregistroan aparteko dohaia eukan, berbaz eta kan-

Izakeraz samurra zan, Karmelo, lagunarterako atsegina eta aurrean daukanari edertasuna ikusten ekiana

tuz, fintasun bereziagaz. Derioko Udako Ikastaroaren inguruan Labayru Ikastegia erakunde legez eratu zanean, bera zuzenean ibili ez arren, beti babestu ditu erakundearen jarduerak, hurretik segidu eta bai eskatu jakon guztietan laguntasuna emon be. Sortzailea eta Labayruko ohorezko laguntzailea zan.

Labayru Ikastegiaren susterra, oinarria, zehazten Karmeloren ekarpena ezinbestekoa izan da.

Ander Manterolak, Ikastegiaren zuzendariak eta Karmeloz gatazko hasikeratik ibilitakoak, ekin eta ekin egiten eutsan bere bizitzan euskereagaz lotutako alderdia idatziz kontau behar ebala-ta. Azkenean ekarri eban hori dana testura, Euskera nire bizitzan izeneko liburuan argitaratu zana (Labayru Ikastegia, 2003). Irakurgarria benetan, Karmelo ezagutu gura dauanarentzat. Zer eta zelan esaten dauan ikusita ondo igarriko deutso irakurleak personea be zelangoa zan.

Bera ezagutu izanaren poza izango dogu aurrera egiteko indarra.

(*) Labayru Ikastegikoa

ADOLFO AREJITA (*)

Karmelo Etxenagusia gogoan

KARMELO Etxenagusia (Iurreta 1932) hil da gaur, 2008. azaroak 6, gaisoaldi baten ondoren. Bilboko gotzain laguntzaile izan da iaz arte eta Euskaltzaindiari aspaldiko denboretatik atxikia: euskaltzain laguntzaile 1965. urtetik eta oheretako 1998. urtetik.

Euskera nire bizitzan (2003) bere azken liburuan kontatzen du prosa paregabean idatzirik autografia labur bat, batez ere euskararekiko izan duen gaztetatik atxikimendua zehaztasun handiz azaltzen duena. Iurretako semea, etxeko euskara berezko eta aberatsaren jabe, txikitatik zaletu zen euskarara eta abadegai zela hasi zen lantzen liburuak irakurritz.

Derioko Seminarioan euskara irakasten aintzindari izan zen 60gn hamarkadan, ikasle belaunaldi ugari igaro direla haren geletatik.

Euskara ikasteko bibliografia gutxi eskura zegoen aldirian, literaturaren bidea hautatu zuen hizkuntza era atseginagoz ikas zedin. Hartarako prestatu zituen Euskal idazleen lorategiak: bizkaierazkoa lehenik (1965) eta gipuzkerazkoa hurrengo (1967).

1970ean Derioko Udako Euskal Ikastaroa sortu zenean, udaro hango irakasle izan zen hogeituz urtez eta beste antologia bi atondu zituen: Euskal idazleak bizkaieraz (1980) eta Iparraldeko euskal idazleak (1988). Horretara borobildu zuen

Bizkaiko euskara jatorra ezagutu nahi duenak irakur beza Euskera nire bizitzan liburua lehen kapitula

euskara literatura bidez lantzeko irakasbide osoa, beti ere "dakigunetik ez dakigunera" lemapean zentzuzko metodologiari jarraituz.

Literaturaren irakaskuntzan testurik bikain-atseginenak hautatzen zituen, jera hobe egiten ziola poesiari hitz lauukoari baino; are gehiago katurako egokitua bazen.

Liturgia liburuen bizkaierazko bertsioetan ere ezagun izan da Etxenagusia lumaren ikutua, hala nola pastoral eta beste, Elizbarrutiko idazki ugarietan.

Hizlari bikaina ere izan da, hizkeraren leun, gozo eta aberatsaren jabe.

Bizkaiko euskara jatorra hurretik ezagutu nahi duenak irakur beza goian aipatu *Euskera nire bizitzan* liburua lehen kapitula, euskarazko hitz lauuko antologiaren finkatzeko modukoa.

(*) Adolfo Arejita, euskaltzain osoa

Beltxa

DETALLES

La mayor colección de detalles para bodas

INVITACIONES Y COMPLEMENTOS

COMUNIONES y BAUTIZOS

C/ Gordóniz, 38 48002-BILBAO
www.detallesbeltxa.net

5%
de Dto.

TEL.&FAX: 94 422 08 23
detallesbeltxa@euskalnet.net